

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Miranda lehendakariordea Nafarroa- Nazioarteko Praktiketarako Bekak emateko ekitaldiaren buru izan da

70 gaztek lan-praktikak egingo dituzte Erkidegoaz kanpoko herrialdeetako 41 enpresa eta erakundetan, Nafarroako Nazioarteko Planaren barnean

Viernes, 17 de febrero de 2012

Bigarren lehendakariorde
eta Ekonomia eta Ogasun

kontseilari Alvaro Miranda
Nafarroa-Nazioarteko
Praktiketarako [Beken
banaketa-ekitaldi](#)aren buru
izan da gaur goizean.

Bigarren
lehendakariordearekin batera
izan dira, Nafarroako
Unibertsitate Publikoko

errektore Julio Lafuente; Nafarroako Unibertsitateko Ikasleen errektore orde María Iraburu; Nafarroako Enpresarioen Konfederazioaren (CEN) lehendakari José Antonio Sarría, eta Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Nazioarteko Politikako zuzendari nagusi María Jesús Valdemoros.

Beka horiek [Nafarroaren Nazioarteko Plan](#)aren barnean sartzen dira, eta haien helburua da goi-tituludunak diren gazteek beren lan-praktikak Erkidegoaz kanpoko erakundeetan egin ditzaten (enpresak, ikerketa-zentroak, GKEak, enbaxadak, kontsulatuak, Espainiako Turismo Institutuko bulegoak eta merkataritza-ganberak). Programaren lehen edizio honetan, 70 gaztek jaso dituzte beka, eta kopuru horregatik 42k Nafarroako Jauregian gaur egin den banaketa-ekitaldian parte hartu dute.



Miranda lehendakariordea eta agintariak Nafarroa-Nazioarteko Praktiketarako Bekak jaso dituztenekin.

Nafarroako Gobernuak 396.526 euro inbertitu du programa honetan (beka bakoitzeko 5.432 euro batez beste), eta kudeaketa [Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Unibertsitate-Sozietate Fundazioarekin](#) eta [Nafarroako Unibertsitatearen Enpresa Fundazioarekin](#)

lankidetzan egin da. Lehenengoaren gerente Jesús Arrondo eta bigarrenaren lehendakari eta zuzendari-gerente Javier Taberna eta Ignacio Uría, hurrenez hurren, izan dira beken banaketa-ekitaldian.



Nafarroa-Nazioarteko Praktiketarako Beken banaketa-ekitaldia.

Bere diskurtsoan, Miranda lehendakariordeak azaldu du beka horiek ez direla une honetan bizi den krisi-egoeraren aringarri, baizik eta Gobernuaren zein Nafarroako gizartearen apustu estrategiko bat dela profesional berriak agertoki orokor batean prestatzeko. Bekadunei gogora ekarri die sakrifizio eta erronkaz jositako amets bat betetzen ari direla, eta urte gutxian Nafarroako ekonomiaren ekoizpen eta ekonomian txanda hartuko dutenak direla eta, bereziki, [Moderna Plana](#)ren baldintzak garatu beharko dituztenak.

Azkenik, Miranda lehendakariordeak Nafarroan dauden enpresak aipatu ditu eta bekadun batzuk atzerriko herrialdeetako beren ordezkartzetan eta zentroetan, Foru Erkidegoko enpresen dinamismo eta erantzukizunen adibide direla. Enpresa horiek dira: SIC Lázaro (AEB); Computadores Navarra (Israel); Seinsa (India); Elikagaien Erakusketa eta Kontserbazioa (Txina eta Mexiko); IAN (Txina); Koxka, (Dubai); Cinfa Labrategiak (Hego Korea); BSH (Txina); Iberfruta (Maroko); FIDIMA (AEB), eta Tecnoenpol HM (Kolonbia)

Manuel Martínezek, bekadunen izenean, Gobernuari esker oneko hitzak esan dizkio eta baita prestakuntza jaso duten unibertsitate nafarrei ere.

Nafarroa-Nazioarteko Praktiketarako Bekei buruzko informazioa

Beka bakoitzaren barnean onuradunarentzako joan-etorriko bidaia bat sartzen da, egonaldiko gastuetarako diru-zorro bat (helmugako herrialdearen arabera aldatzen dena), aseguru bat eta, egokia denean, bisatuaren gastuak.

Bekak emateko eskatzailearen ikasketa-espeditentea kontuan hartu da (% 20), egin behar den praktikak Nafarroarako zer interes estrategiko duen (% 20) eta hautagaiaren lan-profila nola egokitzen zaion (% 60). Bekek 6 hilabeteko iraupena izango dute gutxienez eta 2012ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dute.

Onuradunek izan behar zituzten baldintzen artean dago, nazionalitate espainiarra edo Europar Batasuneko estatu kideetako batekoa izatea, Nafarroan erroldatuta egotea, kasu bakoitzerako eskatutako unibertsitate-titulazioa izatea deialdia argitaratzen denetik aurreko 3 urteetan lortutakoa eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Unibertsitateak ematen dituzten atzerrian praktikak egiteko prestakuntza-planean aurrez izena emanda egotea.

Praktiketan gazte nafar gehien hartuko duen herrialdea Txina da (14); ondoren datoz, AEB (13), Mexiko (5) Peru (5), India (4) eta Kolonbia (4). Zerrenda osatzen da Paraguai, Australia, Maroko eta Singapur-ekin, bakoitzak 2 ikasle hartuz; Argentina, Kanada, Txile, Malaysia, Bolivia, Brasil, Hego Korea, Costa Rica, Dubai, Ekuador, Israel, Norvegia, Zeelanda Berria, Dominikar Errepublikak, Turkia eta Uruguai, berriz, onuradun bana hartuko dute.